

## ZUMAI A / Ilusio eta emozioen Alondegia

'Gaur egun berezia da guretzat'. Hitz horiekin hasi zuen Zumaiako Kultura teknikaria den Miriam Romatetek atzo goizerako prestatu zuten Alondegi eraberritua ezagutarazteko bisita gidatuan. Eta ez da gutxiagorako. Izan ere, herritarrek aurrerantzean kultur etxea herri gunean izango dute eta ez dute Forondaraino igo beharko. Zumaiarren artean Oxford bezala ezagutzen den eraikinak atzo zabaldu zituen ateak eta bizilagun ugari bertaratu zen kultur etxe ikusgarria ezagutzera. Gainera, goizeko bisitan parte hartu zutenek Baleike aldizkariko kazetaria den Gorka Zabaletak prestatutako Oroitzapenen alondegia erakusketa ikusteko aukera izan zuten behe solairuan. Zabaletak eraberritze lanak hasi aurretik atera zituen argazki bereziak jarri ditu ikusgai hilaren 22ra arte.

### **Bista ederrez jositako eraikina. Teknologia berriak ere bai**

'Ze ilusio! Ze bistak! Egundokoa da!', oihukatu zuen Elena Irureta aktore ezagunak bisitan. Izan ere, eraikinaren pisu guztietan Zumaiako bista ederrekin gozatzeko aukera dago. 'Zoragarria da. Nik uste nuena baino hobeto geratu da', azaldu zuen Andoni Ormazuri bizilagunak. Alondegiak lehenengo solairuan, Berdintasun eta Gazteria eta Kultura sailaren bulegoak ditu. Bigarrenean, berriz, haurren liburutegia jarri dute, teknologia berriez hornitua eta hirugarrenean, helduen liburutegia. Azken solairua ikusgarria da benetan, ikasteko eta taldeko lanak egiteko gelak baititu, bista ederrekin. 'Ikasteko zaila izango dute batzuek txoko zoragarri honetan!', nabarmendu zuten bizilagunek barrezka.